

# PLAN OROKORRAREN BERRIKUSPENAREN BIGARREN AURRERAPENAREN EDUKIAREN GANEKO LABURPENEA



Auzokoren batek **informazio gehiago** gura izan ezker, **udaleko zerbitzu tekniko eta juridikoen bulegoetara** joan ahalko da; bertan, **Aurrerapen osoa** dago eskuragarri, eta **09:00etatik 13:30era** dago zabalik, **astelehenetik barikura**.

Modu berean, udalak **erakusketea antolatu** dau gai horren ganean **Kultur Etxean, 09:00etatik 20:45era**.

Bertan, **udaleko langile teknikoek azalpen egokiak emongo** dabez, irailaren **22an eta 29an (eguztena), 11:00etatik 13:00etara**, eta irailaren **27an eta urriaren 4an (astelehena), 17:00etatik 19:00etara**.



**Igorreko  
udala**



# 1. HARTUTAKO LURRALDE-EREDUA EZARTEN DABEN ERISPIDEAK

Dagozan uri-eremuak barritu, hobetu eta handitu ahal izateko beharrezko lurzoruen erabilera barrien espazio-okupazioa eta banaketea ezarriko dauan lurralde-eredua zehazteko, honakoa izan da helburu nagusia: oreka onargarria topetea, batetik, ingurumena egungo egoeran mantentzearen eta, bestetik, dagozan uri eta industria-eremuak (bai eta gaur egun eraldatuta ez dagozan lurzoru barrien urbanizazio-prozesuan sartzeko beharra daukienak be) barriztau eta hobetzeko beharrak beteteko beharrezko eraldaketak egiteko aukera emotearen artean.

Jakina danez, daborduko eraldatu dan lurzoruaren uri-barriztea eta barriztetea egiteko eragiketak zein eraldaketa-prozesuan sartuko diran bestelako azalera lehenengo kasuan zehazten dira eta zehaztu eta mugatu egiten dira bigarrenean, bai dagoan uri-kalidatea hobetzeko ikuspuntutik, bai urbanizazio-prozesuan sartu beharreko azalaren dimensino egokiak eta egokituak bilatzeko beharretik.

Horretarako, Aurrerapenean azterlan xehatua egin da, etxebizitza, industria, tertziario eta ekipamentu-erako lurzoruak handitzeko benetako beharretara egokitua; batez be, izaera publikoa daukien azken honeek, dagoan ekipamentua hobetzeko ekipamentu-hornikuntzea lortzeko.

Aurretik zehaztutako erispideekaz batera, badago beste helburu bat, eta funtsezkoa da helburu hori lortzea udal-planeagintzearen berrikuspenean. Helburu hori honakoa da: Arratia eta Indusi ibaiek Igorre udal-mugartean daukien tartean uholde-arazoak erabat konpontzeko beharra.

Aurretik aitatutako iraunkortasun-erispideen bidez jardun eta uholde-arazoa konpontzearen ganeko helburua lortu ahal izateko (horreek biak, argi ikusi daitekeenez, alkarren artean lotuta dagoz), Eusko Jaurlaritzako bi sailek ezarritako arauetara segidu jake, bai eta Igorreko Alde Funtzionalaren Lurralde Planak ezarritakoari be.

# 2. EGON DAITEKEZAN URI-GARAPENEN DIMENSINOAK

Igorreko udal-mugartean ezarri daitekean gehienezko biztanle-kopurua- ren ganeko proposamena zehazteko, plan orokorraren berrikuspenaren Aurrerapenaren alternatibek daukien edukia- ren arabera, uri-lurzoruko bilbea beteteko erispideari segidu jako. Behar hori betelanakaz eta dagoan bilbea zabaltzeko lanakaz egiten da, espazioa- ren aldetik uri trinkoa lortu ahal izateko eta etenkako uri-lurzoruak Elexaldeko erdiguneagaz lotu ahal izateko.

Proposamena aldaera oso txikiakaz ezarten da, hiru alternatibaren

arabera. Horreetan guztietan, lortutako gauzatze-prozesuaren ondorioz, lurzoru urbanizagarrian dagoan eskaintzeari eutsi behar jako, batez be, Z-21 (Olabarriko bide zaharra), Z-23 (Udea Behekoa) eta Z-4 (Garbe eta 105 bitartea) sektoreetan; guztira, 349 etxebizitza dira.



Aurreko kopurua dala-eta, uri-lurzoruaren bilbea handitzearen ondoriozko osogarria aurreikusten da, eta 1. eta 2. alternatibetan (bietan bardin) beste 275 etxebizitzarako lurzoru-garapena zehazten da eta 3. alternatiban, 407 etxebizitzakoa.

Ondorioz, Aurrerapenean proponidutako hiru alternatiben bizitegitarako garapenaren ganeko datuak honakoak dira:


1. alternatiba  $275 + 349 = 624$  etxebizitza
2. alternatiba  $275 + 349 = 624$  etxebizitza
3. alternatiba  $407 + 349 = 756$  etxebizitza

Aurretik aitatutako bizitegitarako eskaintzearen kopuru osoak konparetan badoguz Igorreko Alde Funtzionalaren Lurralde Planak ezarritako kuantifikazino-erispideak apliketearen ondoriozko gitxieneko eta gehienezko eskaintzea-gaz, honakoa ikusi daitegu: hiru alternatiben eskaintzea gitxieneko eta gehienezko kopuruen artean dago, ia parekatuta lehenengo bi alternatibetan eta bitarteko-beheko gunean hirugarren alternatiban.

Modu berean, eskaintzea, hiru alternatiba horreetako edozeinetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduak horren gunean bialdutako txostenean adierazotako

etxebizitzen gehienezko kopurua (914) baino txikiagoa da.

Hori guztia kontuan hartuta, honakoa ondorioztatu daitegu: Igorreko plan orokorra berrikusteko Aurrerapen honen proposamen orokorrrak iraunkortasun-erispideari eusten deutso, eragin gehien daukan urigarapena –bizitegitarako garapena–dala eta. Holan ba, etorkizuneko beharrak beteteko behar-beharrezkotzat jotzen diran lurzorua baino ez eraldatzeko planteetan da; hori guztia, plan orokorra baino hierarkia-maila handiagoa daukien lurralde antolamendurako planei eta Eusko Jaurlaritzaren organo eskudunak ezarritako erispideei segiduta.



# NATURA-INGURUNEAREN TRATAMENTUA. LURZORU 3. URBANIZAZINOAREN SAILKAPENA ETA KALIFIKAZINOA

Lurzoru urbanizaezinak lehenengo alternatiban udal-mugarteko % 93,81 hartzen dau; bigarrenean, % 93,96 eta hirugarrenean, % 93,52. Horrenbestez, ondorioztatu daiteke Igorre udal-mugarteko zati handi bat urbanizazio-erabileretarako lurzoruaren eraldaketa-prozesutik kanpo dagoala.

Lurzoru urbanizaezinean dagozan landa-nukleoaren lurzoruaren kategoria dala-eta, adierazo behar dogu, Eusko Jaurlaritzaren 105/2008 Dekretuak ezarritako arauketa barriaren ondorioz,

Aurrerapen honetan mantentzen dan landa-nukleo bakarra San Kristobalگو nukleoa dala, gaur egun dagozan etxebizitzaren arabera finkatua.

Lurzoru urbanizaezin lez sailkatutako ganerako lursailak guneeetan banatzen dira, Igorreko Alde Funtzionalaren Lurralde Planak ezarritakoari segiduta; horretarako, Lurralde Antolamenduaren Zuzentarauak ezarritako kategoriak erabilten dira, eta horreek guztiak lursailen egoera naturala babesteko maila altua daukan araudia daukien gunek dira.





Nekazaritza eta abeltzaintzako eta landazabaleko eta basoko gune edo kategorietan baino ez dira baimentzen horreetako bakotxaren nekazaritza-baliabideak ustiatzeko produkzio-jarduerak, bai Igorreko Alde Funtzionalaren Lurralde Planean, bai nekazaritza eta abeltzaintzako sektoreko lurralde-planean ezarritako araudi-erispideei segiduta.

Lurzoru urbanizaezineko lursailei aplikautako araudi-tratamentua dala-eta

adierazo daikegun ondorioak aukera emoten deusku honakoa baiezteko: plan orokorraren berrikuspenaren ganeko Aurrerapenak natura-ingurunearen konserbazino- eta mantentze-maila altua ezarten dau, Kimar Consultores Ambientales, S.L.k egindako ingurumen-eraginaren baterako ebaluazioaren ganeko azterlanaren edukian ikusi daitekean moduan.

## 4. ARRATIA ETA INDUSI IBAIEN IBILGUEN TRATAMENTU-PLANA

Igorreko plan orokorraren Aurrerapenak, horretarako urigintza-kalifikazioakaz batera, Arratia eta Indusi ibaien ibilgu barriei emoten jaken tratamentuaren diseinua jasoten dau; hori egungo URA Uraren Euskal Agentziako zerbitzu teknikoek idatzitako planak jasotakoaren arabera egin da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen eta Lurralde Antolamendurako Sailak Bizkaian eukan ordezkariatzako zerbitzu teknikoek egindakoa jasoten dau.

Aitatutako ibilguen tratamentua honako helburu honegaz egin da: ibai horreen ibilguetan uholde-eremuak sortzea saihesteko, Igorre udal-mugartearen barruan; horretarako, ibilgu barrie tratamentu leuna eta naturalizetako erraztasuna daukan tratamentua ezarten daben diseinu-erispideak hartu dira kontuan, eta aitatutako helburuak lortu ahal izateko bigarren ibilguaren konponbideak erabili dira.

